AULESTIKO UDALA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, IRUZUBI LASAI-GUNEAN UDALAK BERTAN INSTALATUTA DUEN OSTALARITZA-INSTALAZIOEN (txiringitoa) APROBETXAMENDUA ADJUDIKATZEKO

1. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea hauxe da**: Iruzubi lasai-gunean udalak instalatuta duen ostalaritza-instalazioaren (txiringitoa) aprobetxamendua adjudikatzea**. Kontratuak, **denboraldi bat (2026/06/01etik-2026/09/30era) iraungo du indarrean eta beste denboraldi baterako luzatu ahal izango da (2027/06/01etik 2027/09/30era)** eta, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauen 1372/1986 Errege Dekretuak (ekainaren 13koa) araututakoari jarraituz, emakida administratibo bidez egingo da.

Kontratua, administrazio-kontratu berezia da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 25.b) artikuluaren arabera, Iruzubi lasai guneko erabiltzaileei zerbitzu publiko eta berehalakoa ematea duelako helburu.

2. Proposamenak hautatu eta kontratua esleitzeko prozedura

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da eta interesdunek euren proposamena aurkeztu ahalko dute eta kontratuaren terminoei buruzko negoziazio oro baztertuta dago, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 156.artikuluaren arabera.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira: eskaintza ekonomikorik eta proiekturik onena.

3. Publizitatea

Kontratuari dagokion informazioa gardena dela eta edozeinen eskuera dagoela bermatzeko, udal honek Kontratatzailearen Profila dauka. Horretarako, webgunean arautzen diren zehaztapenen arabera izango du sarbidea hurrengoko helbidean: www.aulesti.eus

4. Kanona

Lizitazioaren oinarrizko kanona 200,00 euro izango da hilean, BEZ barik, eta hileko lehen bost egunetan ordaindu beharko da udaleko kontu korrontean. BEZa %21a izango da. Kanona, denboraldi barruan ordainduko da soilik, hau da, ekainaren 1etik irailaren 30a arte.

5. Kontsumizioen prezioa

Prezioen taula jendaurrean jarri beharko da, kontsumitzaileen eskura dauden produktu guztien zerrendarekin batera.

6. Kontratazio-organoa

Kontratua zenbatekoa den ikusita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorrita, kontratua egin eta espedientea izapidetzeko eskumena Alkatearena da. Izan ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera alkatea izango da kontratazio-organoa eta berea izango da lan eta hornidura zerbitzuak, zerbitzu publikoak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak kudeatzeko eskumena, kontratuaren zenbatekoa lehen ekitaldiko aurrekontuko ohiko baliabideen % 10 gainditzen ez dauenean.

7. Iraupena

Jabari publikoko ondasuna ustiatzeko epea, hau da, **kontratuaren iraupena, esleitzen den hurrengo egunetik hasita irailaren 30era izango da, biak barne. Derrigorrez zabaltzeko epea denboraldikoa izango da, ekainaren 1etik irailaren 30era, biak barne.**
Hala ere, ezarritako epe horiek baino arinago zabaldu edota beranduago itxi nahi izan ezkero, udalarekin adostu beharko da eta denboralditik kanpo ez da errentarik ordaindu behar, hau da, errenta 0,00 euro izango da. Horretarako, eskaria idatziz egin beharko da udaleko idazkaritzan eta erantzuna jaso arte ezingo da denboralditik kanpo martxan jarri.

Luzapena: 2027. urterako denboraldian txiringitoa hartzeko aukera izango du esleipenunak. Horretarako, 2027. urteko urtarrilaren 31a baino lehen idatziz jakinarazi beharko du udaleko idazkaritzan jarraituko duen edo ez. Hori egin ezean, eta txiringitoa hartzen ez badu, denboraldiko zenbateko osoa kobratuko zaio (4 hileko zenbatekoa).

8. Baimenaren kontrola

Udal langileek hitzartutako baldintzen jarraipena egingo dute eta behar diren jarraibideak emango dituzte bermatzeko jarduera behar bezala egiten dela.

Beren eginkizunak betetzeko, udal langileek behar dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte baimendutako jarduera behar bezala egiten ari dela ziurtatzeko.

9. Emakidadunaren eskubide eta betebeharrak

1. Kontratuaren xede den jabari publiko zatia berak bakarrik eta berea balitz lez erabiltzeko eskubidea, **kioskoaren inguruan dauden zazpi mahaiak barne.**

2. Jarduerarako beharrezkoak diren lizentzia eta baimenak eskuratzea

3. Jarduera kudeatu eta ustiatzea.

4. Agiri honetan ezarritako kanona ordaintzeko betebeharra. Honek esan nahi du, emakidadunak ordaindu beharko dituela ondasunei edo horien erabilera orokorrari edo zerbitzuari eragindako kalteordainak.

5. Erabilitako jabari publiko zatia behar den moduan zaintzeko betebeharra.

6. Kioskoaren ingurua garbi eta txukun zaintzeko betebeharra. Horretarako, eta batez ere asteburuetan, parkean dauden zabor-ontziak hustu beharko dira gainezka egin ez dezaten, eta, horrez gain, ondoan dauden komunak ere garbi mantendu beharko dira, osasungarritasun-

baldintzetan.

7. Erabili izandako ondasunak agindutako epean udalaren esku libre uzteko betebeharra, deialdia erabakitzeko eta gauzatzeko ahalmena udalarena dela aitortuta.

8. **Egunero zabaldu** beharko da, eguraldi txarra ez badago behintzat. Zabaltzen ez denean, udalari jakinarazi beharko zaio.
9. **Bertoko produktuen aldeko aukera egitea** edo, gutxienez be, bertokoak direnak ere eskaintzea.

10. **Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jardutea**, zerbitzuko **jarduera guztia euskaraz izatea**, bai ahozkoa, bai idatzizkoa.

11. **Baimendunak bere gain hartuko du lanpostua**. Udalak ez du inola ere bere gain hartuko baimendutako pertsonak bere gain hartutako betebeharren erantzukizuna, ezta hirugarrenei eragiten dizkien kalte edo galerena ere.

12. **Errotuluak, kartelak, seinaleak eta antzeko elementuak euskaraz** egongo dira, Udalak barne erabilera planean zehaztutakori jarraiki. Horretarako, laguntza izango du udalaren aldetik.

8. Udalaren ahalmenak, betebeharrak eta erantzukizuna

— Udalak, epea baino lehen deuseztatu ahalko du kontratua interes publikoko arrazoiak badaude, eragindako kalte-galeren ordaina emanez edo ordainik barik, hala erabakiz gero.
— Udalak, emakidaren xede diren ondasun, instalazio eta eraikinak ikuskatu ahalko ditu edozein momentutan.
— Udalak, jarduera hasi aurretik bertan dauden ondasun, instalazio eta eraikinak ondo daudela konprobatu beharko du.
— Udalak ez du erantzukizunik izango lanpostuan izandako kalteengatik, arrazoia edozein dela ere.

9. Ondasunak itzultzea

Emakidaren aldia amaitzen denean, emakidadunak udalari itzuliko dizkio emakidaren xede izandako ondasunak, kontratuaren arabera behartuta dagoen moduan eta ondo zainduta eta ondo funtzionatzen dutela konprobatuta.

Inbentarioan zehazten diren ondasunak itzuli beharko ditu eta horiek apurtzen badira, beste batzuengatik ordezkatuak izan beharko dira.

10. Emakida amaitzeko kausak

Hona hemen emakida amaitzeko arrazoiak:

— Epea betetzea.
— Emakidaren xede izandako ondasuna desagertzea.
— Ondasunaren *desafekzioa*.
— Emakidadunak uko egitea.
— Udalak ondasuna berreskuratzea.
— Ebazpen judizialez.
— Plegu honetan agertzen diren betebeharrak ez betetzea.

11. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea

Eskaintza aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira: pertsona fisikoa edo juridikoa izan, jarduteko erabateko gaitasuna izan, kontratatzeko debekurik ez izan eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala egiaztatu.

Prozedura honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten duenak egunean izan beharko ditu Aulestiko Udalak egindako likidazioen ordainketak eta baita legeak agintzen dituen zerga eta lan betebeharrak bete beharko ditu.

Enpresaburuaren **jarduteko gaitasuna** honetara egiaztatuko da:

a) **Pertsona juridiko** diren enpresaburuek honako dokumenturen bat aurkeztu beharko dute euren jarduteko gaitasuna egiaztatzeko: enpresaren eratze-eskritura edo agiria, estatutuak edota fundazio egintza, euren jarduera arautzen dauen araudia jasota eta, hala badagokio, pertsona juridiko motaren

araberako erregistro publikoan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

b) **Pertsona fisiko** diren enpresarien jarduteko gaitasuna, berriz, NANa aurkeztuta egiaztatuko da.

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 71. artikuluan aurreikusitako **kontratatzeko debekurik ez** daukatela egiaztatzea erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuta egin ahalko da.

3. **Enpresaburuaren kaudimena**:

3.1 **Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza- kaudimena** finantza erakunderen batek egindako aitorpen bidez egiaztatu ahalko da edota, halakorik balego, arrisku profesionalengatik kalteordain-aseguruaren justifikazioa aurkeztuta.

3.2. Zerbitzu-kontratuen kasuan, **kaudimen teknikoa** azken hiru urteetan egindako lanen edota emandako zerbitzu garrantzitsuen zerrenda aurkeztuta egiaztatu daiteke, lan edo zerbitzu horren zenbatekoa, datak eta hartzailea (publiko zein pribatu) zein izan dan zehaztuta.

12. Proposamenak aurkeztea

Eskabideak aurkezteko **epea hamar (10) lan-egun izango da**, deialdi hau udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
Eskabidea modu presentzialean zein elektronikoan aurkeztu ahal izango da:

- *Modu presentzialean*: Aulestiko udaleko idazkaritzan. Donibane enparantza, 1 48380 Aulesti. **09:00etatik 14:00etara**.
- *Modu elektronikoan:* udaleko egoitza elektronikoan edota lizitazio plataforman.

Lizitatzaile bakoitzak ezin du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezta aldi baterako enpresa elkarte baten izenean aurkeztu ere, banaka aurkeztu bada edota enpresa elkarte bat baino gehiagoren barruan aurkeztu bada. Arau hau urratzen duen proposamenik ez da onartuko.

Proposamena aurkeztean, enpresaburuak agiri honetako klausula guztiak onartzen ditu, salbuespenik gabe.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak bi gutunazal itxi izango ditu, lizitatzaileak sinatuta eta jakinarazpenak zein helbidetan jaso nahi dituen adierazita.

Kartazal bakotxak bere titulua adieraziko dau eta hurrengoa idatziko da: *Aulestiko* ***Iruzubi lasai gunean udalak instalatuta daukan ostalaritza-instalazioa (txiringitoa) aprobetxamendu pribatiboa*****ren lizitazioan parte hartzeko proposamena.**

- "A" kartazala – Dokumentazio administratibo eta teknikoa
- "B" kartazala - Eskaintza ekonomikoa

Kartazaletan sartuko den dokumentazioa originala izango da edo indarrean dagoen legeriari jarraituz legeztatutako kopiak.

Kartazal bakoitzean agiri hauek sartuko dira, aurkibide batekin:

A.- DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA ETA TEKNIKOA

A.1) DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzeko agiriak.

b) Ordezkotza egiaztatzeko agiriak.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ageri diren debekuetako bat bera ere ez daudela adierazten duena (II. eranskinaren arabera).

Horrez gain, adierazpen horretan zerga betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela egiaztatu beharko da. Hala ere, kontratuaren esleipendunak egoera hori egiaztetan duen agiria aurkeztu beharko du kontratua hartu baino lehen.

d) Helbide elektronikoa jakinarazpenetarako.

e) Atzerriko enpresak badira, Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikziopean jarriko direla adierazten duen agiria, kontratutik

zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabeherarik egonez gero. Kasu horretan, lizitatzaileak uko egingo dio dagokion atzerriko jurisdikzio foruari.

A.2) DOKUMENTAZINO TEKNIKOA.

a) Dokumentazio teknikoa: Memoria, ondoren azaltzen den eran.

MEMORIA:

- **Iruzubi lasai-gunean Udalak bertan instalatuta duen ostalaritza-instalazioen (txiringitoa) aprobetxamenduraka proiektua**: negozioaren plangintza eta antolaketa agertu beharko dira ideia orokorrak zehaztuz: jendeari irekita egongo den ordutegia, emango den janari zerbitzu minimoa, eskainiko diren ekintza gehigarriak…
- **Lizitatzailearen esperientzia ostalaritzan edota turismo munduan**: titulazio ofiziala, arlo horretan egindako ikastaroak, edo azken hiru urteetan egindako negozioen zifrak, etab... egiaztatzen dituen agiriak gehituz, edo lizitatzaileak berak ondo eritxitako beste batzuk aurkeztuz.
- **Udalerriko pertsonen enplegua sustatzeko plana**. Udalerrian enplegua sustatzeko konpromisoa agertuko da, kontratatuko diren pertsonen kopurua eta bere tipologia zehaztuz, bereziki udalerrikoak izatea.
- **Orokorrean,** adjudikazio irizpideak betetzearen edozein agiri justifikagarri.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza bien ezagupena ahoz eta idatziz**.

Memoriarekin batera hor agertzen diren datuen agiri egiaztagarriak -baleukoz- aukeztuko ditu.

Administrazioak egiaztatu daiteke adjudikazio aurretik edo ondoren, eta baita kontratazioa indarrean dagoen bitartean bere, kartazalean sartu diren dokumentuen edukia egiazkoa dela; baita, kasua balitz, karatulan esleipenerako irizpide berezitzat jotzen diren agiriena bere. Lizitatzaileak aurkeztutako datuak eta zirkunstantziak faltsuak izanez gero, kontratua balio barik itxi leiteke kasu horretan, kontratistari egozten jakon hausteaaren ondorioz. Horrela, jarritako behin betiko bermea galdu egingo leuke edo, kasuaren arabera eratu ez bada edo eratzea eskatzen ez bada, bere balioa duen kalte-ordaina. Gainera, kontratistak sortutako kalte-galerak ordaindu beharko deutzoz konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditu egiten bada.

Proposamenak aurkezteak plegu honetan ageri diren klausulak eta kontratuarekin zerikusia daukaten gainerako dokumentuak baldintzarik gabe onartzea dakar lizitatzailearen aldetik, inolako salbuespenik gabe. Era berean, erantzukizuneko adierazpena egingo du ziurtatuz aurkeztu diren datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren prestaziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

B.- ESKAINTZA EKONOMIKOA.

a) Eskaintza ekonomikoa: I. eranskina bete beharko da

13. Balorazio-mahaia

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Testu Bategineko Bigarren Xedapen Gehigarriak dioenari jarraituz, balorazio-mahaia hurrengoko hauek osatuko dute:

Lehendakaria: alkatea

Bokala I: idazkari-kontuhartzailea

Idazkaria: administraria

Mahaia osatzen duten pertsonak ordezkatuak izan ahal dira ordezkatzen dituzten beste batzuengatik, beti ere aktan horrela agertzen bada.

14. Adjudikazio irizpideak

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onena zein den erabakitzeko, kontuan hartuko da kanon handiena zeinek eskaini duen.

Orokorrean eskaintzarik onena egiten duenaren alde egingo da adjudikazioa, plegu honetan agertzen diren irizpideak erabilita, prezioa bakarrik kontuan izan barik.

Eskaintzak baloretako irizpideak honeek izango dira:

-Proiektu onena, **50 puntura arte**; baloratuko dena izango da:

- Proiektuaren lanketa eta bideragarritasuna, 6 puntu
- Ustiaketa, 30 puntu
- Sortutako lanpostuak, 8 puntu
- Herrira eta herritarrengana egokitasuna, 6 puntu.

-Ostalaritza edo turismo arloko esperientzia. Hemen esperientzia eta formazioa baloratuko dira. **15 puntura arte.**

-Eskainitako prezioa. **35 puntura arte.**

15. Administrazioaren eskumenak

Kontratazio-organoak, hurrengoko eskumenak izango ditu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 190 artikuluaren arabera:

a) Kontratuaren interpretazioa.
b) Kontratua betetzerakoan egon daitezkeen zalantzak erabakitzea.
c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
d) Kontratua suntsitzea eta horren ondorioak zehaztea.

16. Proposamenak irekitzea

Kontratazio-mahaia, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bost egunekoan eratuko da, eta jasotako eskaintzak baloratuko ditu.

17. Behin betiko bermea

Eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzaileak 500,00 euroko bermea eratu duela egiaztatu beharko du.

Bermea, 2017ko SPKLren 108.artikuluan ezarritako edozein eratan jarri ahal izango da.

Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko harik eta berme-aldia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme hau, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Legearen 110. artikuluan sartutako kontzeptuak beteko direla ziurtatzeko da.

18. Dokumentazioa eskatzea

Kontratazio-mahaiak, aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akats eta gabeziarik ikusten badu, hiru lan-eguneko epea emango dio gehienez ere lizitatzaileari horiek zuzentzeko.

Judizio-balio baten arabera kuantifikatu ahal diren irizpideak eta automatikoki kuantifikatu daitezkeenak baloratu eta gero, kontratazio-mahaiak kontratua eskaintza ekonomiko onenari adjudikatzeko proposamena egingo du.

Kontratazio-mahaiak eskaera egingo dio eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari:

1.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiriak aurkez ditzan edo kontratazio-mahaiari baimena eman diezaion ziurtagiri horiek zuzenean lortzeko.
2.- Baimenduko den jarduerari dagokion epigrafean jarduera ekonomikoen gaineko zergan (EEI) alta eman izanaren egiaztagiria, alta aurkeztuz, edo EEIren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Horrekin batera, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Pertsona ez badago hura aurkeztera behartuta, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da inguruabar hori.
3.- Behin betiko bermea: 500 euro
4.- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza (gutxienez, 50.000 euro) eta ordainagiria.

19. Emakidaren formalizazioa

Emakidaren formalizazioa administrazio-agiri batean egingo da hamabost laneguneko epearen barruan, adjudikazioaren jakinarazpen datatik aurrera zenbatuta. Agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora heltzeko.

20. Kontratuaren erregimen juridikoa

Kontratu honek izaera administratibo berezia dauka, eta bere prestaketa, adjudikazio, ondorio eta iraungipena Plegu honen xedapenen mende egongo dira. Bestalde, Plegu honek aurreikusteen ez duen kasuetan, hurrengokoa aplikatuko da: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak; osagarri moduan administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, hura ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honetan bi aldeen artean sortzen diren eztabaidak ebazteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 27 artikuluarekin bat etorriz.

21. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak

Kontratua suntsiarazteko arrazoi dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak. Gainera, honako kasu hauetan jardungo da:

a) Kontratua gauzatzen den bitartean zerbitzua etetea edo kontratua sinatuta ez betetzea.
b) Kontratuan ezarritako ordutegia ez betetzea.
c) Kanonaren ordainketa partzialak atzeratzea.
d) Instalazioak zaintzeko edo garbitzeko arduragabekeria edo udalak emandako zerbitzuari buruzko jarraibideak ez betetzea.

Suntsiarazpen-kasu horietako edozeinetan, instalazioak Udalaren jabetzakoak izango dira, eta ez diote inolako kalte-ordainik eman beharko kontratuaren esleipendunari, instalazioak funtzionamendu- eta garbiketa-egoera ezin hobean utzita.

22. Administrazioaren eskumenak

Administrazioaren eskumena da plegua interpretatzea, plegua betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla eta plegua aldatzea, kontratua ezeztatzeko erabakia hartzea eta kontratuaren ondorioak

zehaztea, beti ere tokiko entitateen ondasunen erregelamenduan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako mugak eta ondorioekin.

Aulestin, 2026eko martxoaren 11an.

Alkatea,
Izpta.: Irati Urberuaga Aranguena

AULESTIKO UDALA

I. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOA

Iruzubi lasai-gunean udalak instalatutako ostalaritza-instalazioen (txiringitoa) aprobetxamendua prozedura ireki bidez eta lehiaketa eran eskaintza ekonomiko onenari (zeinek diru gehiago eskaini) adjudikatzeko deitutako lehiaketaren jakinaren gainean nagoela adierazten dut, kontratuaren adjudikaziorako baldintzen plegua ezagutzen dudala eta osorik onartu, eta lizitazioan parte hartu nahi dot:

IZEN-ABIZENAK_____

NAN: _____

ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA:

_____

ERAKUNDEAREN IFK:

_____

JAKINERAZPENETARAKO HELBIDEA:

_____

_____

ESKAINTZA EKONOMIKOA (BEZ barik: _____ € BEZ: _____ €

GUZTIRA (BEZ barru) _____ EURO

Aulestin, 2026eko _____ aren _____ (e)an.

AULESTIKO UDALA

Lizitatzailearen sinadura,

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA AULESTIKO UDALARI.

Izen-abizenak:.....jn./and.

NANa:.....zk.

Jakinarazpenetarako helbidea:..... herria,

..... kalea, ... zk.

Posta elektronikoaren helbidea:.....

.....enpresaren legezko ordezko gisa.

Enpresaren IFK:..... Egoitza soziala:.....

.....herria,.....kalea,.....zk.,.....PK

Telefono zk.:.....

Faxa: .....

Posta elektronikoaren helbidea: .....

AULESTIKO UDALA

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Pertsona juridikoa: Ordezkatzen duen enpresak legez eta Aulestiko Udalarekin kontratuak egiteko Administrazio Klausula Partikularren Pleguan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, eta ordezkatzen duen enpresak kontratazio hau egiteko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duela egiaztatzen duten agiriak dituela. Halaber, hala eskatuz gero, daukan ordezkaritza egiazta dezake, dokumentuen erabilgarritasuna, gaitasuna, baldintzak eta abar esanbidez adieraziz. Agiri horien dokumentazioa (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua) Aulestiko Udalak eskatzen duen lizitatzaileak soilik aurkeztuko du, eta hori izango da kontratua esleitzeko proposamena.
Pertsona fisikoa: ez dauka udalarekin kontratuak egiteko inolako eragozpenik.

BIGARRENA.- Ordezkatzen duen enpresak gaitasun osoa duela AULESTIKO IRUZUBI LASAI GUNEKO OSTALARITZA-INSTALAZIOAREN (Txiringitoa) esleipendun izateko, eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizunak egiaztatu ahal izango dituela, aipatutako Klausulen Pleguetan eskatzen den moduan.

HIRUGARRENA.- Ordezkatzen duen enpresa ez dago Administrazioarekin kontratatzeko debekuetako batean ere sartuta (SPKLren 65-71 artikuluak).

LAUGARRENA.- Indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta ez duela zorrik Aulestiko udalarekin betearazpen-aldian, eta betetze horien egiaztagiriak dituela.

BOSGARRENA.- Konpromisoa hartzen du baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko, kontratazio-organoak eskatzen dion edozein unetan, eta, nolanahi ere, esleipen-proposamena haren aldekoa bada, jatorrizko agirietan edo fotokopia konpultsatuetan aurkeztuko ditu, esleipena egin aurretik.

SEIGARRENA.- Honako hauek dira lizitazio honetan era guztietako errekerimenduak, komunikazioak eta jakinarazpenak egiteko datuak, Legeak ezarritako ondorio juridikoekin:

AULESTIKO UDALA

Harremanetarako pertsona:

Helbidea:

Herria: PK:

telefonoa: Faxa:

posta elektronikoaren helbidea:

.....(e)n, ... (e)ko.....ren .....(e)an.

(Enpresaren/pertsonaren sinadura eta zigilua)

AULESTIKO UDALA

III. ERANSKINA. ATZERRIKO ENPRESEK ESPAINIAKO EPAITEGI ETA AUZITEGIEN JURISDIKZIOAREN MENDE DAUDELA ADIERAZTEKO EREDUA.

…….jaunak/andreak,

bere izenean edo honako enpresa honen ordezkari gisa

……,

……NAN zenbakiarekin eta

…… gisa, eta Aulestiko Udalaren kontratu honetan parte hartzeko, honako hau ADIERAZTEN DU, bere erantzukizunpean:

Aulestiko Udalarekin egindako kontratuetatik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztiak Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dituela, eta, hala badagokio, dagokion atzerriko jurisdikzio-foruari berariaz uko egitea.

Eta, horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, adierazpen hau egin da

……, (e)n, ……(e)ko ……ren ……. (e)an

1 Oharra: erantzukizunpeko adierazpena egiteko gaitasuna duen pertsona batek sinatu beharko du. Adierazi aitortzaileak enpresan duen ordezkaritza.

AULESTIKO UDALA

IV.-IRUZUBI LASAIGUNEKO OSTALARITZA-INSTALAZIOA (TXIRINGITOA)







AULESTIKO UDALA

V.-TRESNERIAREN INBENTARIOA – Ikus eranskina

AULESTIKO UDALA

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117- P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus